

# Mixel ETXEKOPAR :

Gotaine Irabarnen sortu, Gotaine Irabarnen bizi, Gotaine Irabarneko Goi mailako musika kontserbatorioan ebilia, txoriak erakasle.

Xiberoako mendietan artzain eta ardien Master Class batzu egina

30 000 urte hontan xirulan jarraitzen, Izturitzeko xirula lekuko

Zaharraren berritasuna bilatzen, berriaren betikotasuna edireiten

XIRU jaialdiaren sortzaile

Xiberoan bizizale

Euskal hitzen xahakotik edale

Matalazi arrapostu emaile:

"DOLÜ GABE DOLÜ GABE
BIZI NIZ
HILTZEA XIBEROARENTAKO
OHILTZEN BEITÜT
SEGÜRRA SEGÜRRA
AZKORRIAN
JEIKIRIK DIRA
EGIAZKO XIBEROTARRAK
EGIAZKO EÜSKALDÜNAK
BESTEEN ARTEAN BIZITZEKO"



Xavier Pinon

# PIERRE VISSLER

Pierre Vissler, irratiarentzat soinuak sortzen eta antolatzen hasi zen,  hitzak eta hitzen musika erabiliz. Orain, antzeztoki baten gainean, isisila, sudur gorri baten gibelean gordetzen da.

Garazi Sound System taldean, bere soinuak musikari eta kantarien musikarekin nahasten zituen. Baita ere testu, musika eta dantza nahasten dituzten ikusgarri batzuetan parte hartu du. Xiberurat etorri denetik, kulturaren ekartzearen garrantzitsuaz ohartu da.

Dibertimendua ez duenez gustuko, klownaren bidez adieraztea hautatu du, bere buruaz ez da trufatzen baina ikusleei bere ahulezietaz gozatzea proposatzen die.